

Nafarkaria

Nafarrorako gehigarria / Ostirala, 1992ko urriak 16 / II. urtea / 46. zenbakia

Usoak zailak datoz

Metropoli forala



FELIPE RIUS

Modaren esklaboak eroturik ibiliko dira egun hauetan. Armairu guztiak yupientzako arropaz beterik zituztenean, galtza urratuak eta alkondara zikinak inposatzen hasi omen dira Hollywood-en, eta, jakina, modek berehala gurutzatzen dute Atlantikoa.

Dutxarik ez hartzea, ez garbitzea ere defendatzen ari dira famatu asko. Beharbada kosmetikoak fabrikatzen dituzten enpresak beldur izanen dira eta dagoeneko kontraofensibaren bat prestatzen ariko dira. Zeinek daki, agian look berriari dagokion lurrinen bat eginen dute zabortegiren batetik ateratako esentziekin edo hortzak belzten dituen dentifriko bat asmatuko dute.

Estilo berri honek indarra hartuko balu irudi parregarriak ikusiko genituzke gure kaleetan. Bagabundoez osatuko lituzkete bankoen administrazio kontseiluak, ministroek hautsitako alkondarak jantziko lituzkete korbataren ordezkoufoulard zikin bat jarritz. Cindy Crawford-ek zorriak erakutsiko lituzke modelo paseetan eta Armani-k pixez egindako koloniak komertzializatu beharko lituzke.

Badakit guzti hau exajerazio bat dela eta gehienetan horren kontserbadorea den gizarte hau ez dela horren urrutira iritsiko. Hala ere, joera hauek nolabaiteko eragina izanen dute, ideologiak bazterrean gelditu omen diren garai hauetan estetikari gero eta garrantzi handia ematen bait zaio. Batzuen ustez punkiek utzitako herentziak bizirik dirau, beste batzuentzat guzti hau gauegun nagusitu den gusto txarraren adibide adierazgarri bat besterik ez da eta zenbaitek berri hauek egunkariaren orrialdeak betetzeko txorradak direla esaten dute. Nik ez dakit zer izango ote den, baina lisatu gabeko arropa askoz ere lasaiago eraman dezaket orain, batere lotsatu gabe.



Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Euskararen iraupena Nafarroako gaztelan izeneko erakusketa ikusgai dago Agoitzen, bertako udalak antolatutako. Nafarroako Gobernuak subentzionatutako erakusketa honetan, Erribera eta erdialdeko zonaldean irauten duten hitz euskaldunak agertzen dira. Erakusketa panelen bidez antolatu dute, eta panel bakoitzean gai bati buruzko hitzak azaltzen dira. Fauna, flora, sukaldaritza, etxebizitza eta osasun landareak dira aipatutako gaiak, beste batzuen artean.

'Euskara Nafarroan' izeneko erakusketa ikusgai dago Bianan, urriaren 19a arte. Erakusketaren inaugurazioan, Rodriguez Otxoa Hizkuntz Politikarako zuzendaria egon zen.

Asuncion Goikoetxea artistaren lanak ikusgai daude Iruñeko Pintzel galerian, hilabetearen amaiera arte. Sakanako pintore honen lanak txuri-beltez egingoak dira, eta nahiko abstraktoak. Publikoari goizez eta arratsaldean dago zabalik.

IKASTAROAK



Dantzak ikasi edo fanfarre batean musika jo nahi duten neska-mutilek Ortzadar Iruñeko euskal folklore taldearekin ha-


Joan den asteko ajea oraindik kenduta ez badago, edota, besterik gabe, lasaitasun apur bat nahi bada, asteburu honetan gaztelu, eliza eta monastegien artean emateko proposamena luzatuko dugu. Inguru ia hutsik baten erditik, Nafarroako zonalderik ahaztuenetakoa bisitatuko dugu.

Irunberitik gora doan zonalde osoan, Romanzadon, inon baino herri hutsik gehiago dago, eta urtetik urtera dira 'ofizialki' desagertzen direnak. Hor aurkitu daitezke inork sekulan aditu ez dituen herrien izenak, batzuk bixiak oso: Napari, Orradre, Aizpurgi, Gindano, Arieltz...

Hogei biztanletara heltzen ez diren herriak, etxe handiak eta dotoreak arraildurik, eta izugarriko isiltasuna airean, haize gorrak astindua soilik.

Inguruan ere ez dira falta ikuskerik ederrak, eta horietariko bat Arbaiungo Potxa, txoriak eta hegaztiak gogokoak izanez gero,

rremanetan jartzea besterik ez dute, taldeak berak jakinera eman duenez. Interesatuak dantza taldeak Descalzos kalean duen egoitzara joan daitezke, edo telefonoz deitu.



bederen. Gizaki bereziak nahigo? horra hor Leire eta bertakoak. Ez galdu arratsean egiten dituzten kantuak. Irunberri eta Na-

bazkozen ere aurkituko da norekin hitz egin, errepidearen ondoan, bankuan eserita, patxada ederrean.

Ikastaroak maiatza arte iraungo du, ostegunero bi orduko saioarekin, 9,30etatik 11,30ak bitartean. Javier Aisa kazetariak eta Javier Mateo historiagileak zuzenduko dute ikastaroa.

du Nafarroa Kirol Elkartek datorren igandera, urriak 18. Andia Goñiko mendatean ospatuko da, hamabi kilometrotako martxa, lau ordutan egingo dena.

IBILALDIA



II. Helduen Ibilaldia antolatu

ANTZERKIA



Eta etxeok, zer moduz? antzezlan eskainiko du bihar, urriak 17, Taupada taldeak, Zizur Nagusiko Kultur Etxean. Ekital-

dia arratsaldeko zortzietan hasiko da. Igandean, berriz, Fregoli antzerki taldeak 'Estazioko begiradak' izeneko lana aurkeztuko du, leku eta ordu berdinean.

Oido Cocinaj izeneko antzezlan eskainiko du datorren igandean, urriak 18, Trapu Zaharra taldeak, arratsaldeko zortzietan. Ekitaldia Nafarroako Antzerki Eskolan emango dute, udazkenaren programazioaren barruan. Sarrerak, 500 pezetan salduko dituzte helduentzat, eta gazte txartela dutenentzat prezio erdia izango dute.

MUSIKA



Julian Ayesa organu jolea, Javier Los Arcos eta Joaquín Chasco tronpetak joleak arituko dira bihar, urriak 17, Tafallako Santa Maria elizan, arratsaldeko zortzietan. Kontzertua Organuaren Lagunen Elkartea eta Nafarroako Gobernuak antolatu dute.

Kojon Prieto Azabatxe eta Los Huajolotes musika taldea arituko da bihar, urriak 17, Altsasuko gaztetxean, gabeko hamarretan.

Su Ta Gar, Zup eta Sasoi Ilunak musika taldeak arituko dira bihar, urriak 17, Etxalarren, gabeko hamar t'erdietan.

ERRAN DUTE

Zeharo bat nator euskarari buruz Alliren adierazpenekin.

Pilar Abadia

UPNko parlamentaria
«Zorionez Clementek ez zuen ikusi joan den asteko partidua».

Javier Lopez

Osasuna Promesaseko atezaina
«Akitaniak asko ikasi behar du Nafarroarekin».

Pierre Variant

Akitaniako Kontseilutakoa
«Itoitz eta Nafarroako Ubi-dea ez dira eginen».

Kiko Lako

Itoizko Koordinakundekoa

ASTEKO PERTSONAIK


Fernando Redon



Arkitektoa

Sevillako Expo'92 erakusketak astelehen honetan itxi zuten ateak, eta horrekin batera Nafarroako pabilioiak. Fernando Redon bere zuzendariak sei hilabete hauetan lan franko izan badu ere, merezi duela adierazten du, eta Nafarroak pabilioarekin lortutako ospe eta irudi ona azpimarratzen du. Orain, baina, erai-kinarekin zer egingo den erabaki beharra dago, eta Ingurugiro Departamentuaren egoitza aipatu bazen ere, gauza bakarra dago ziurtaturik: pabilioia desmontatu eta Nafarroara ekarriko da. Nora, oraindik ez dakite, baina ekarri ondoren erabakiko dute.

Mikel Mindegia



Aizkolaria

Ez kurako aizkolaria handia hiru garrena gelditu zen joan den igandean Araian (Araba) egin zen Euskadiko Aizkolaritza Txapelketan. Bere berrogeitabi urterekin, Mindegia garbi erakutsi zuen kirol honek eman duen aizkolaririk handienetakoa izan dela, teoriak bera baino sasoi hobean dauden aurretik gelditu bait zen. Horien artean Larretxea arantzarra, bera faborituenetakoa izanda ere. Mindegia, hamar txapelen jabe, kiroltasun eta profesionaltasun aparta erakutsi zuen igandean. Beste batzuk, ordea, apostuei begira egoten dira, ezer baino lehen.

Jose Miguel Etxabarri



Banestoko zuzendaria

Banestoko etorkizunari buruzko zurrumurruak ugaritzen ari diren une honetan, Abartzuko zuzendariak omen dauka laberintoaren giltza. Banestok utzi nahi omen du taldea, eta beste enpresa bati saldu, baina zaila da aurkitzekoa publikizitatean seirehun bat milioi pezetan inbertitzeko prest dagoen horietako bat. Agian aterabidea taldeak daukan aurrekontua murriztea litzateke, baina Indurainen inguruan talde on bat behar da, eta kanpoan badaude horietako prest. Etorkizuna korapilatsua, beraz, eta zaila asmatzekoa. Etxabarri du giltza.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



HERRIZ BERRI




Tutera

Bardeetako Batzarraren bilera

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Bardeetako Batzar nagusia egin zen atzo goizean, osteguna, erakunde honek dituen arautegien aldaketei buruzko proposamenak eztabaidatzeko. Bertan hiru proposamenak ziren eztabaidatzekoak: Batzarrek berak proposatutakoa, Pirinioetako Ibarretako partaideek —Zaraitzu eta Erronkariko Batzar Nagusia— aurkeztutako beste bat, eta Baltierrako Udalaren partetik heldutako hirugarren bat, bertako zinegotzi eta alkate sozialisten bermea duena. Berri hau idazterakoan oraindik bilera ez zegoen amaitua.

Bilera hau funtsezkoa da



Bardeak, aldaketa sakonaren beharra duen zonaldea.

JOXE LACALLE

botoa jaso zuen aurkeztu zenean.

Hori dela eta, bigarren bilerare deitu zuten irailerako, baina zertxobait atzeratuta, atzo zen ospatzekoa, esan bezala.

Eta bileraren aurretik ere ez da falta izan polemika, Baltierrako Udalak aurkeztutako proposamena ez baitzuen onartu lehen-dabiziko momentuan Batzarraren presidentek. Horretarako,

proposamena aurkeztetakoan izandako hutsaz baliatu zen Jose Antonio Gaiarre presidentea, Baltierrako Udalak ez baizik bertako alkateak aurkeztua baitzen.

Kritika gogorak jaso zituen orduan presidentek, eta aste honetan bertan proposamen berbera igorri zitzaion, orain Udalak sinatuta. Hori dela eta, Gaiarre

onartu egin zuen proposamena, hain segur, aurrera ateratzeko aukera guztiak zituena.

Proposamenarekin batera eskutitz bat igorri zuen aipatu alkateak, Bardeetako batzarrari buruzko informazio gehiago eskatuz. Bereziki batzorde iraunkorrek hartutako erabakien berri zehatza eta aldirokoa eskatzen zuen Baltierrako alkateak.

Bilera hau funtsezkoa izango da Bardeen etorkizuneko, bertan erabakiko baita herri askorendako atzeratuegi dagoen arautegiaren aldaketa.

21.000 hektareatan zabaltzen den alde bitxi honetarako, bertan erabakiko baita herri guztiendako atzeratuegi dauden arautegien aldaketa. Izan ere, oraingoan arabera, Bardeetan egin daitezkeen jarduerak oso mugatuta daude, eta nekazariak botere ukiezina dute bertan.

Hain zuzen ere, arautegien aldaketarako lehendabiziko proposamena, batzorde iraunkorrak egin zuena, jabetza pribatua lortzeko zuzendua zegoen, talde askoren ustetan, eta PSOEren ordezkariak zuen herrien kontrako

Sakana

Autobidea informazio publikora

IRUÑA

Sakanako autobidearen Hiri-berriko adarra eta Satrustegiko lotuneko lanak jendaurrean eza-gutxera eman berri du Nafarroako Gobernuak. Honen ondorioz, ondasun eta lurrak desjabetzeko prozesuari ekingo zaio, eta alegazioak aurkezteko epea hogeiguneko da foru agindua atera zenetik.

Sakanako Herrietako Batzordeak, bestalde, Urbina-Maltzaga eta N-1 errepideen inguruan sortutako polemikan Nafarroako


Gobernuak eta Eusko Jurlaritzak izandako jarrera kiritikatu du komunikatu baten bidez. Batzordearen ustetan, «honek garbi adierazten du errepideen egitasmoaren barruan ez dagoela benetako plangintza orokorra». Horren adibidea paratzen du, halaber, Sakanako bideberrian izandako gorabeherak. «1986an herrietarako saihebidetarako aurrikusita zeuden» azaldu du, «1989, makroautobidea erabaki zen; eta orain, 1992an, autobidea hori bi errailatutako N-1an amaituko dela ikusten ari dira».

arabera. 50 milioi horietatik 38 aurtan inbertituko dira: 28 Orreagan eta hamar Erremendian.

Orreagan, Bereko Borda, Giritu mendia eta Soraluez-Nabala lurretan dauden azientetan, behi talde bat dauka ITG-vk, ehun bururekin. Talde hau haragi behiena da (frisona eta hazitarako haragiena), eta bertan ere 280 esne ardi daude.

Orain onartutako inbertsio honen bidez, artalde 500 bururaino zabaldu nahi da, eta behi taldea aldatu egingo da. Orain dagoen haragi behien ordeztu, Pirinioetako haragiena paratuko dira, eta inbertsioa lehendabiziko txahal buruak erosteko erabiliko da. Halaber, Orreagako azienta honetan, gaztategian ere aldaketak egingo dira, eta gazta ontzeko gela zabaldu eta jeisteko makina erosiko da. Hau esperientzia aitzindaria izango da, makina mugikorra izango baita.

BEHIAK JEISTEKO TRESNA MUGIKORRA Honekin batera, beste tresneria mota ere erosiko da, eta larreak hobetzeko zenbait lanak egingo dira: ongarria bota eta ertzeen



Produktzioa hobetzea da helburua.

garbiketa. Erremendian ere beste azienta bat dauka Behi Institutuak, eta bertan laurhun buru haragi ardi daude, beti azterketa lanetarako. Hor egingo diren inbertsioak eraikin eta tresneria dagokie. Horrela, argi indarra bertaraino eramateko lanak egingo dira, eta horren bidez animalien horniketa hobeki egin ahal izango da, horretarako paratu behar diren sareen bidez. Halaber, hesiak ere gehituko dira nabarmen.

Orreaga

ITG-vren azientan inbertsioak



ARRE herria saihesten duen errepidea konpontzeko proiektua onartu du Nafarroako Gobernuaren Herrilan departamentuak, lanak hasi eta berehala hondatu ondoren. Belateko bidea hartzen duten bidaariak ederki asko konturatu ziren bertan soilik errail bat zegoela duela asko, Ezkaba mendiaren magalean izandako lurjauzia dela eta, baina konpontzeko lanak izugarri atzeratu dira. Nonbait, horretarako azterketa geologikoak zailak ziren eta.

BERRIOZARKO Eguzki plazaren inguruko polemika berriro piztu da, dena konponduta zegoela zirudienean. Plazan akats eta kopondu beharreko lan asko nabarmendu ziren, eta Udalak eta bertan dauden garajeen jabeen arteko liskar franko izan ondoren, azkenean akordioa lortu zuten bi zatiek. Horren arabera, Udalak bertan somatu diren akatsak konpondu beharko zituen. Orain, baina, Udalak soilik erabileraren ondorioz sortutako akatsak konponduko dituela azaldu du, eta jabeek, ordea, itokin eta filtrazio guztiak konpontzea nahi dute. Azterketa guztien arabera, konponketa plaza altxatzean etorriko zen, baina oso garestia izango litzateke.

EUSKARA

Euskara Iruñerrian

Pasa den udan hil zen Esteban Garbisu, Iruñerriko 'azken' euskaldun zaharra. 'Azkena', bera izan bait da inguru euskaldun batean bizi den azkenotakoa, berarekin batera Iruñerriak mundu zahar bat galdu duelako. Berak atxeki bait dio mendeetan zehar eremu honetan izan den hizkuntzari. Beorburun (Xulapain) jaioa, Zigandan (Atetz) bizi zen, eta egun Iruñerriko kaleetan milaka haur euskaldun daudelarik, merezi du omenaldi txiki bat Iruñerriko euskara 1992ra arte mantendu duen azken kuenkoak.

MIKEL BELASKO / IRUÑEA

Ba al daki irakurleak Iruñerriko euskara noiz desagertu zen? Ba al daki zein herritan jaio zen ohore triste hau hilobira eramane duen gizona? Agian beste galdera batekin erantzun lezake irakurleak. Zergatik etorri orain euskararen mixeriak egurastera hizkuntza inoiz baino bizkorrago dagoenean Iruñerrian, zergatik tristatu Iruñerrian jaiotako azken euskalduna hil delako haur euskaldun berriak milaka ditugunean kaleetan?

Baina ezin duda Esteban Garbisurekin Iruñerriak mundu zahar bat galdu duela, behin ere errepikatuko ez dena. Eta Estebani ohore egin behar zaio, 1992ko udara arte Iruñerriko euskara gordetzea ez bait da lan erreza izan.

Iruñerriko azken euskaldunak ez al du izanzen Erronkarikoek adina ohore eta ospe? Ez antza denez. Erronkaritik orain arte noizean behin ailegatzen zitzaizgun azkeneko azken euskalduna aurkitu zutelako zurrumurrua. Handik gutxira egunkarietan genuen erronkariarra, izabarra edo uztarrozearra beti, eta haren mintzoa liburu eta kasetetan salgai hilabete batzuetara. Iruñerrikoekin, tamalez, inor ez zen gogoratzen. Edo gutxi eta leku izkutueta, hots, aldizkari espezializatueta, Ezkabarteko berriak kasu.

Esteban Garbisu Beorburun jaio zen 1911. urtean oraindik erabat euskalduna zen haran batean. Han bizi izan zen Atetza ezkondu arte. Gizon ederra eta sendoa beti aritu zen alorretan eta soroetan lanean. Denek goraipatuko dute hainbeste urtetan erakutsitako indarra eta prestutasuna, bene benetakoa bait zen haranean zioten miresmena.

Beorburu San Esteban de



Iruñerriko azken euskalduna



Atezko Ziganda herrian Garbisu familiak duen etxea. Behean, Esteban Garbisu ilobarekin. ALBERTO BARANDIARAN

Juslapeña izeneko haranean dago, Xulapainen euskara garbian, baina askorentzat izen hauek arrunt ezezagunak dira. Eta behin edo behin baten batek aditu baldin baditu, nekez paratuko litzuke behatzak behar den tokian mapa baten gainean. Iruinseme gehienek, hala ere, harana zeharkatu izanzen dute Ultzamara bidean bai bizikletaz bai kotxez. Donostiarako karretera utzita, eskuin alderakoa hartuaz eta Berriogiti atzean utziaz, Ollakarizketara iristen gara. Ollakarizketatik Atabururaino (Puerto de Marcaláin kaletarrentzat) eta San Cristobal eta Eltxumenditik Beorburura horra hor Xulapain. Harana bi puskatan banatzen da: Elbarrena —Ollakarizketa, Untzu, Gartziriain, Markelain, Usi, Beltzuntze eta Nabatz—; eta Ergoiena —Larraiotz, Nuin, Aristregi, Osinaga, Otsakar eta Beor-

buru—. Lehenbizikoek San Isidro hartzen dute jauntzat, eta bigarrenak San Bartolome.

XULAPAINGO EUSKAL IZKRIBUAK

Esteban Garbisu goraipatzen ari garen ezkerro euskarari gorde zaion atxekimenduagatik Xulapainek euskarari utzitakoak ere mahaingainean paratuko ditugu. Idazlerik ezean ez dira falta besterako dokumentuak, batez ere oraintsu arte bertako hizkuntza izan delako. Urrutiegira joan gabe Julio Altadillen hitzak aldatuko ditugu segituan. Jakintsu honek 1914an idatzi zuen 'Geografia del Pais Vasco-Navarro' liburuan, honela zioen Xulapaini buruz:

«Ohitura ondratuak; ez dira ezagutzen jabetza, bizitza eta onestidadearen kontrako delituak. Ohizko hizkuntza, euskara».

Elbarrengo zenbait herritan oraintsu arte bizi izan dira azkeneko euskaldunak. Nabazko eta Untzuko azkenek solasaldi luzeak zituzten orain dela hogeitau urte. Untzuko Bernardina Guindanok gogoan zituen hitz asko eta baita aitagurearen puxkaren bat.

ZAZI FITE ICHERA

Nabazko iturria ere euskalduna dugu, nahiz eta mende honetakoa izan: Zazifite ichera irakurriko dugu bertan. Nonbait emakume iturrizale eta berritsuak handik uxatu beharra zegoen. Ezin ahaztu Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoko Usiko hitz bati, Urbana Aguinagari, 1980an egindako galderak eta honek kontatutako istorio bat argitaratu direla.

Ergoingo euskararen berri ere badugu. Nuingo prediku bat zaharrena. Osinagan Kanpionek itzultzaile bikain bat deskubritu zuen Orreaga izeneko balada euskaratzeko, Don Bernardo Echeberria.

«Gauerdie da. Karlomano Erregia Auriz-perrin dago bere ejerzito denareki. Ezta illargik, ta ez izarrik, zeruen; irrutire kusten dire suek mendi erdibetan».

Tomas Lopez Selles-ek dioenez Otsakarko alorretan eta San Antonio egunean nekazari bat lanean ari zen. Batbatean haren gibelean soinuak aditu zituen. Burua jiratu hara non txerri gorri eder bat ikusten duen gero eta hurbilago. Txerria bertan zuela otsakartarrak esan zion espantuz:

—Kendu ortikan txerri gorri!

Baina ustez txerria zenak honelaxe erantzun zion pekatari fedegabeari:

—Ez naiz txerri gorri. Andoni Deuna naiz.

Euskaraz beraz bai xulapain-darra eta baita saindua ere, eta, Andoni Deunaz den bezainbatean, euskara garbi garbian.

EUSKARA


Euskara Iruñerrian

«Aldian biño aldian gutxiago»

M.B. / IRUÑEA

Esteban Garbisuren prestutasuna eta indarra haranako denek goraipatzen dute, 80 urteak ongi beteak izanda ere hor ibiltzen bait zen langar azpian behiekin. Ilo-
bek ere hartu zuten osabaren sa-
soia eta aspaldiko kuenkoen an-
tzera nagusitu izan dira parte
hartu duten herri kiroletan. Eus-
kara gorde ez badute ere, bai
kuenkoen odol zaharrari atxeki
zaiaela.

Beorburu eta Iruñerriko eus-
kara uda honetara arte gorde da
Estebanen mintzoan. Edadeko
pertsona guziek bezalaxe barre-
nean zituen hamaika pasadizo
kontatzen zituen gelditu gabe
aukera ikusiez gero. Gazte den-



Esteban Garbisu.

borako oroimenak beti ere bizie-
nak nahiz eta aspaldian gertatu:

*An ebaki nuen nik igitayeki
oeitasei urte nituelarik igitayeki,
sega egiten... ta trast ola gelditu
zen ori biatza. Ta aitek nabalki
moztu nai zuen ta nik, ez, ez, ku-*

*landeraki. Ilarregiko kurandera
eaman. Artu zaldien ta eraman
zien Ilarregire ta orrek erran zin:*

*—Bapues moztu baziñu etzuen
azazkazalik izein te orai moztu
ezpaituzu pues orai azazkala ate-
rako zaio.*

*Ta orai enaiz emendik bi mi-
nutuen buruen enaiz oroitzen
biño ori etzait atzentzen. Eta gero
beix, amabi urte nittuelarik idieki
ongarri ateratzen edo nabilen
ta... mekaguen diez! idiek bat ar-
patuziren arpatzen diete anka ta
pa... txurmioa bi lekutik autsi.
Artu ta kuranderangana ta:*

*—Au ezta yaus, au ezta yaus,
au ezta yaus— te ura in zirelarik,
dios... erran ziren:*

*—Txurmioa bi lekutik autsita
daukek.*

*Eta orai ez dut
beñere batre senti-
tzen ortik. Bi illabeten
biño len lasterka ibil-
tzen... batere sentitu.
Ta orai beñere ez dut
batere, orai ere ez.*

Beorburuk, Xula-
paingo zoko guziek
bealaxe, badu bere
magia. Iruñerri zaha-
rra hor dugu ageri a-
gerian. Iruñerri osoan
lehenago usu ikusten
ziren euntze eta arbo-
ladiak laboreekin
nahastuaz gaur ere han
dauzkagu. Iruñerriko
euskara ere hor itzali
da paisaje zahar ho-
netan.



Hala ere Garbisuk berak ikus-
ten zuen alderdi guzi hauetako
eritasuna:

*Bai emengo yendeak badakizu
bat Iruñera bertzeat fabrikera ta
emen errietan ez baita bizitzeko
modurik eta yendea eskapatzen
da, emen aldian biño aldian gu-
txiago gelditzen ari gara. Ta A-*

*rostegin berean ni onara ezkon-
du nitzelik amalau bat familia ba-
ziren eta orai bi iru ta ori txalet...*

Ez da beraz harritzekoa Beor-
burun jaiotzea Iruñerriko azken
euskalduna. Ez litzateke gero ere
zilegi izanzen abisurik gabe uztea
herri honek Iruñerriko egin
duena.



Beorburu, Garbisuren jaioterria.

ALBERTO BARANDIARAN

Iruñerria eta 'kokoak'

A.B. / IRUÑEA

Iruñerria toki izena Nafarroa
osoan franko ezaguna bada ere,
nekez zehazten dira bere mugen
ertzak, eta horrek interpretazio
eta azalpen ugari eman du haran
eta herri ezberdinetan. Egun,
Eguesibar, Aranguren, Elortzi-
bar, Olloibar, Etxauri, bost zen-
deak (Zizur, Antsoain, Galar,
Itza eta Oltza), Xulapain eta Ez-
kabarte hartzen dira Iruñerri-
tzat, Iruñea bera eta ondoko herri-
az gain, bistan da.

Hain eremu zabala izanda,
oraindik oso urrun ez den garai
batean beste azalpen batzuk bi-
latu ziren tokia errez adierazteko.
Horrela, askotan esan ohi da
Iruñerriak Iruñeko katedraleko
ezkila Maria entzuten zen ere-
mua biltzen zuela barruan. Egun,
baina, ezkila mutua dago. Jimeno
Juriok beste azalpen bitxia jaso
zuen: non egin zitekeen lan
Iruñean bertan bazkaldu ahal izate-
ko.

Iruñerrikoak adierazteko,
beste aldetik, euskaldunek ere
bere izengoti bazuten. Kuenkoak

esaten zitzairen, noski, baina baita
'kokoak' ere, eta zonalde osoa,
zenbait lekutan, 'kokoerria' zen.
Izengoiti honi buruz azterketa
sakonak egin dituzte Patxi Sala-

Iruñerriko biztan-
leak izendatzeko
euskaldunek 'kuen-
koak' esaten zuten,
baina baita 'kokoak'
ere, eta zenbait le-
kutan Iruñerria osoa
'kokoerria' zen.

berri eta Jose Maria Satrustegik.
'Fontes Linguae Vasconum'
aldizkariaren 53. zenbakian argi-
taratutako lan batean, Nafarroa
osoan erabilitako izengoiti hau
aztertzen du Salaberrik.

Horrela, 'kokoak', oro har, ipa-
rraldeko euskaldunek hegoalde-
koei ematen dieten izena da, eta
batzutan nahastu egiten da eus-
karak daukan mugarekin, ertze-
tan daudenendako behekoak beti
erdaldunak izango bait dira. Be-
raz, zenbaitetan, 'kokoak' erdal-
dunak lirateke euskaldunendako.

Autzan (Ultzama), esate bate-
ra, 'kokoak' Iruñerria zonaldea
zein biztanleak izendatzeko era-
biltzen zuten, eta Oderitzen,
'Iruñeko kokoak', Iruñerria adie-
razteko. Zian (Itza Zendea), 'ko-
koak' 'belarrimotzak' izengoi-
tien parekoa zen, hots, erdaldu-
nak. Baina Baztanen Eugiko eus-
kaldunei ere esaten zieten, eta
Araitzen eta Larraunen, Sakana-
koei.

Beraz, Salaberri jarraiki,
esan daiteke 'kokoak' hitzak
behealde adierazten duela. Ho-
nen ondorioz, beste bi esanahi
izan ditzake: erdalduna, 'belarri-
motza', euskara ez dakiena; eta
baita Iruñerria eta iruñerriarra
ere, euskaldun askorendako hau
baita beheko lurralderik hurbi-
lekoena.



I.MARTIARENA

Gazteendako Zokoa


Kopetazuri arrunta

Fulica atra

Ur azpian bilatzen du janaria

Nafarroako hegoaldean usuago

Talde handitan neguan



BASAJAUN

Eskoletan, eritexetan, eta etxebizitzetan ikusten diren tximistortatz erradioaktiboak, nahiz eta bere funtzionamendua nolakoa den ez erakutsi, nahiko arriskutsuak dira osasunarako. Beren buruetan estrontzio, radio eta armerio daramate, eta hauek oso kaltegarriak dira, berez.

Eta tximistortatz hauek oso arriskutsuak dira euria, hautsa, argia edo eroria, nahikoa bait da kapsula ireki eta erradioaktibitatearen irteera sortzeko.

Hain zuzen ere, ez da lehendabiziz horrelako gertaera jazotzen dela, eta zenbait eskoletan, umeak minbiziz hil dira bata bestearen atzetik. Madrilén bakarrik, kasu, eta AEDENAT erakunde ekologistak salatutakoaren arabera, zazpi mila tximistortatz badaude.

Baina arazo larrienetakoa, orain, tximistortatz hauetako biltegi bat bilatzea da, leku bat aukeratu denean, inguruetako herriek, normala denez, ez bait dute onartzen horrelako egitasmoak duen arriskua dela eta.

Beste aldetik, Eguzki talde ekologistak, arazoaren ezagupenerako kanpainak egin ditu askotan, argi eta garbi tximistortatz hauen erradiaktibitate zer den azaltzeko eta egoera ere ongi ezagutzeko.

Horrelako arazoez dirauten bitartean, herriek eta gizonak ez zuten lasai egon beharko, segurtasun gutxi eta irregulartasun zenbait dagoelako.

Gaiaren garrantzia dela eta, honi buruz beste zenbait datu ezagutaraziko ditugu beste batean.

Talde handien laguna

Uroiloarekin antza handia badu ere, hura baino handiagoa da, eta gorputza eta mokoa sendoagoak dauzka. Hegan egiterakoan, bere hanketatik atzaparrak nabarmen dira, eta batzuetan isats handi bat dirudite.

Aiurra ere oso bestelakoa da. Uroila bakartia da, baina kopetazuria talde handitan biltzen da zingiretan.

Laurehun eta bederatzehun gramo bitarte pisatzen du, eta arrak eta emeak kolore berbera dute: beltza gorputza, are beltzago burua eta berdeak hankak. Ez du askotan hegan egiten, eta horretarako korrika egin behar du lehendabiziz ur gainetik. Neguan talde handitan biltzen da, milaka izaterainokoak.

Elikadura ere ur azpitik ateratzen du, baina batzuetan ura utzi eta ondoko lurretan ibiltzen da, ur ertzeetan dagoen janari bila. Kabiak paratzeko garaia maiatzaren hasieratik ekaina bitarte izaten da, eta horretarako ihiak, lezkek eta abarrak erabiltzen ditu.

ION MATXAIN

Egun oso gaizki bizi gara. Institutuan astero hogeita-mahiru orduz egon, eta gero etxean arratsalde osoan etxe-ko lanak egiten, edota akademia batera joan beharra... Egun batean edo bitan ez baduzu etxe-ko lanak egiten, irakasleek errieta egiten dizute, eta gero kontrola zuzentzeko orduan, bi aste ematen dute.

Guk ikasleok baditugu eskubideak. Orain oroitzen naiz, ni Irurtunen bizi nintzela, egun batean irakasle batekin gertatu zitzaidana. Zortzigarren mailan nengoela, euskara azterketa bat izan genuen. Kontrola egin, eta hurrengo egunean lantxo bat bidali zigun, egun batean egiteko. Lantxoak egiten hasi nintzen, baina gogorik ez nuenez, utzi egin nuen. Klasera joan eta irakasleak lantxoak eskatu zuenean zera bota nion:

—Zuzendu dituzu azterketak?

Eta berak ezetz erantzun. Orduan esan nion berak kontrolak zuzendu arte, ez niola lantxoak emanen.

Zuzendaria heldu eta errieta egin zidan, eta betiko erretolika guztia. Baina klaseko lagun guztiak nire alde agertu ziren.

Irakaslea sutan jarri zen, eta zuzendariari deitu zion. Esan behar da zuzendaria nahiko astakirtena zela. Beno, zuzendaria heldu eta errieta egin zidan, eta betiko erretolika guztia. Baina orduan, klasean,

asko gustatu zitzaidan gauza bat gertatu zen. Klaseko lagun guztiak nere alde agertu ziren, eta azkenean, beraien laguntzagatik lortu genuen azterketak azkar zuzentzea, hurrengo egunerako zuzendurik bait zeuden.

Hau irakurtzen duenak agian ez du ezer ulertuko, txorakeria bat besterik ez baita. Istorio honekin esan nahi dudana zera da:

1.— Irakasleek askotan eskatzen digute beraiek egiten ez dituzten gauzak.

2.— Egun ikasleen arteko elkartasuna galtzeko arriskua dago, oraingo gizarte kapitalista dela eta. Egungo ikasle guztiak nahi dutena zera da: besteak baino gehiago izatea, eta norbait izorratu ahal badute, hori egiten dute.

Pentsa dezagun piska bat, bai irakasleak bai ikasleok ere.

KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitzaz dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren imotzen jasotako esaera zahar bat ageriko zaizu.

1. Izan
2. Altxatu
3. Baigorriko herria
4. Joko fisiko
5. Ikusten ez duena

B	7	A	2	D	9	B	2	D	3
B	4	A	3	A	10	D	8	D	5
B	6	A	5	D	6	D	2	B	5
A	6	B	2	B	10	A	1	A	4
B	9	A	4	B	8	A	9	D	1

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A										
B										
D										

Jenero Xumekoak

La Euskal Gallera

Den dena galdu diat frontoian. Oh, oh, oh. Etxealde handiko nire etxe maitea, sarobe aunitzetako nire artalde ederra, eta nire setazko atorrak ere bai. Hau oro gertatzen zaidak frontoian aritzeagatik. Oh, oh, oh. Norekin ezkonduko ote orain nire alaba itsusia? Bostetako trenera botako diat burua. Sol de Levante du izena. Ez duk izen nolanahikoa eta hau oro gertatzen zaidak frontoian aritzeagatik. Oh, oh, oh.

JEREMIAS ERRO

Zaharrak berri

Itxurez gaztanbera, lurrez fundamentu.

Itxuraz bikain, izatez huts.


Baztan

Kalean zebilen gizon batek, urduri, ertzainari:

—Aizu, aizuz, gizon bat atzetik jarraitzen didala!

—Ez nau harritzen, pottolo!

Bizi Bizian



Sareak, hutsik. Usoak, goitik, eta lurrean soilik luma batzuk antzema-ten dira, azken saldoen partaide bakan batek utzitakoak.
A. BARANDIARAN

«Gaur ere gauza gutti»

A. BARANDIARAN / ETXALAR

«Gaur ere gauza gutti». Hama-
biak dira, eta goizeko zazpietatik
hor daude, nekaezin bezain temo-
so. Ehiztari askok oporrak har-
tzen dituzte egun hauetarako,
urria eta azaroaren hamaika bi-
tarterako, baina gaur ere gauza
gutti. Goiz osoan zehar saldo ba-
karra pasa da, eta uso bakan ba-
tzuk erori dira sareetan. Gutxi-
gi 800.000 pezetaraino ordaintzen
dutenendako. Munduko afizio
guztia dutenendako ere.

«Usoak zailak datoz, hau da,
betiko gauzak eginda ere usoa ez

da sartzen sareetara, ez du obedi-
tzen. Baina pasatu, pasatzen da
lehen bezala». Pello Apezetxea
Etxalarako apaizak jasota dauzka
urte frankotako datuak usotegiei
buruz, eta azken urteotan behe-
rakada handia izan dela nabar-
mentzen du. «Horretan ez dago
dudarik, baina hori ez da bakarrik
Etxalarren gertatu, sareak erabil-
tzen diren leku guztietan baizik.
Erraten dutenez, ehiztarien pila-
keta dela eta izan da beherakada,
usoak bazter guztietatik oso ziri-
katuak etortzen direlako, eta zai-
lak datoz».

Beherakada hau franko soma-
tu da baita ere postuen
enkanetan eta aurten
iaz baino milioi t'erdia
gutxiago atera du
Udalak postuak alo-
katzerakoan. Batzuk
etsita daude, eta postu
guztiak beti betetzen
badira ere, ehiztariak
solasean ematen dute
goiza eta arratsaldea,
oso noizbehinka adi-
tzen den tronpetaren
soinuaren esperoan.

Bolada hobeak
izan ziren, eta 50eko
urteetan, kasu, 1.500
eta 1.600 dozenako
kopuruak jaso ziren.
Baina ondoren, gora-
behera frankorekin,
etorri ziren urte txar-
rak: 1961ean 164
dozena soilik, 1962an
330 dozena...

Etxalarako usote-
gien fama handiena
izanda ere, badaude
Euskal Herrian beste

zenbait toki usoak sareekin ha-
rrapatzeko ohitura dutenak.
Gehienak bi Nafarroen arteko
mugetan. Horrela, garrantzi-
tsuenak, usoen kopuruari dago-
kionez, Napal (Altzai (Zuberoa)
ondoan), Lekunberri (Donibane
Garazi) eta Landibarekoak (Na-
farroa Beherea) dira, Etxalarakoaz
aparte. Lehendabizikoan 1.464
uso harrapatu zituzten iaz eta
beste bietan zortziehundik gora.
Etxalarren, 930, usoak zein txo-
lomoak batuak.

Hala ere, gutxi dira Bortzirie-
tako herrietakoa bezain ongi an-
tolatuta daudenak, ez alferrik
baitira mendeak bertan ehizatzen
denetik. Hogeitalau postu dira
ehiztariendako, eta sei herrikoen
arteantzen dira. Horretaz
aparte, zortzi talaietan daude
usoen saldoak sareetara eram-
ten saiatzen direnak. Garrantzi-
tsuena, 'trepa' izenekoa, berak
jotzen baitu turuta eta agintzen
die besteei. Kaskoan banatuta,
'trepa gibela', 'arrikura', 'hari-
tza', 'gibeltrepa', 'belata', 'idoi-



Ehiztariak, usoen faltan, solasaldi ederrean.

A.B

koa' eta 'larrekoa'. Sareak bost
dira, bakoitza bere izenarekin:
'larrea', 'elutxa', 'miarra', 'ka-
lamoa' eta 'monua'. Bertan dau-
denak sareak jausi eta usoak ha-
rrapatzen saiatzen dira. Ondoren,

saltzen dituzte, bizirik zein hilak,
lau mila eta mila eta bostehun
pezetan, hurrenez hurren. Nego-
zio gutxi, baina, aurtengoa.

Mendetako ohitura honen
lehendabiziko izkribua XIV.
mendekoa da, 1378koa, hain
zuzen. Iruñeko Kontu Ganbara-
koa da, eta bertan Etxalarako aba-
deak Don Juani emaniko kontze-
sioa zehazten da, «bizitza guzti-
rako, eta bi dozena usoren truke,
barau bakoitzeko urtarilaren
lehendabiziko egunean ordaindu
beharrekoa». Hortik aurrera
izkribu franko agertzen dira hain-
bat artxibotan bereziki XIX.
mendetik aurrera.

Hala ere, ehiztariak ez diote
Teñenari begiratzen, eta pare-pa-
rean dauden Sarako postuetan,
kasu, aldatu egin dituzte betiko
tokiak. Usoak ez ziren pasatzen
eta. Aurten ere gauza gutti.

Usotegietako igandea

A.B. / ETXALAR

Asteburu honetan ospatuko da
Etxalarren Usotegietako Igan-
dea, usoak eta sareen inguruan
sortutako festa herrikoia. Esaera
zaharrak dioen bezala, 'San Luk,
usoa baduk', eta San Lukas egu-
nean —igandea—, Nafarroa
osoko dantzarien jantzi eta soine-
koen erakusketa zabalduko da
bertan. Ondoren, txistularien
desfilea izanen da, eta arratsal-

dean fanfarreak eta Egan taldea-
rekin kontzertua antolatua dago.

Larunbatean ere ekitaldi ede-
rra prestatu dute bertako Altxata
Kultur Elkarteak eta Udalak, eta
rock kontzertua izanen da fron-
toian, Zup, Sasoi Ilunak eta Su Ta
Gar taldeekin. Ondoren, berbena
dago iragarrita Tturruttak tal-
dearekin. Denendako probetxu-
garria, beraz asteburu honetako
festa, ehiztariendako —akaso—
izan ezik.



Usoak sareetara eramaten saiatzen dira. A.B

Miguel Sola

futbolari ohia

Txantreako erdilari erru-
bioak joan den denboral-
dian bere botak betirako
eskegi zituen. Erabakia behartuta
hartu bazuen ere, ez da ezertaz da-
mutzen, eta urriaren 11an euskal
zaletuei agur esan ondoren bide

berri bati ekin dio. Miguel Solak egun haurrak entrenatzen ditu, eta aurki jokalaria helduagorekin has- teko asmoa dauka. Txantreako er- dilari errubio ohia, beraz, Txan- treako entrenatzaile errubioa iza- nen da hemendik aurrera.

«Kementsua izaten ikasi dut»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Zein izan da gauzarik onena eta zein txarrena futbolearen eman dituzun urte guztietan?

MIGUEL SOLA.— Hoberena izan da, dudarik gabe, gustoko nuena egin dudala. Urte guzti hauek futboleant jokatzeko eman ditut, eta horixe zen gehien gustatzen zitzaidana. Txarrena zer izan den esatea zaila da. Gustatzen ez zaizkizun gauza asko ikusten dituzu, baina zaila suertatzen zaizue zahaztea zein izan den txarrena. Beti gertatzen den bezala gauza onak gogoratzen ditut soilik.

EGUNKARIA.— Urte hauetan taldekide anitz izan dituzu. Zein izan da horien artean hoberena?

SOLA.— Athleticen jokalarari on asko ezagutu nituen... Argote eta Goikoetxea agian hoberenak ziren. Osasunan ere baziren jokalarari onak.

EGUNKARIA.— Zein izan da jokatutuzun partidu anitzen artean zuretzat bereziak?

SOLA.— San Mamesen jokatu nuen lehen partidua agian. Aurkaria Valencia izan zen, eta partidua irabazi genuen. Las Palmasen irabazi eta lehen liga txapelketa lortu genuenean ere oso une bereziak bizi izan nituen. Osasunarekin jokatu dudan partiduen artean zirrargarriena agian, Santanderren aurka promozioa zela eta jokatu genuena izan zen. Garaipena lortu genuen, eta lehen mailari eutsi genion.

EGUNKARIA.— Zein da izan duzun entrenatzailerik trebeena?

SOLA.—Guztiekin zerbait ikasten duzu, baina onena Iñaki Saez izan dela esanen nuke.

EGUNKARIA.— Eta ezagutu dituzun zaleturik hoberenak?

SOLA.— Athleticenak dudarik

gabe. Bilbon asko maite dute bere taldea, baina aurkariak joko ona egiten badu, ondo ulertu eta onartzen dute. Munduko zaleturik hoberenak dira.

EGUNKARIA.— Futbolean jokatzeko, zein da zure birtuterik handiena?

SOLA.— Jende gehienak teknika maila ona izan dudala dio, baina nere birtuterik handiena izan da talde guztietan ondo moldatu naizela. Athletic eta Osasunak indarrean oinarritzen dute bere jokoa, kemenean. Nire jokoa tek-

jokatzeko aukera aztertu ere egin. Damutzen al zara futbola utzi izateaz?

SOLA.— Ez, ez naiz batere damutzen. Futbola uzteko une egokia zela uste dut, eta ez dut ezer faltan botatzen.

EGUNKARIA.— Dena den, futbolearen segitzeko asmoa duzu. Egun haurrak entrenatzen dituzu, eta aurki talde handiekin hasteko asmoa ere baduzu. Zeintzuk dira zure ustez entrenatzaile on batek eduki behar dituen trebetasunak?

SOLA.— Hori baneki berehala aberastuko nintzateke. Nire us-tez, hiru gauza dira funtsezkoek-nak. Taldea nola jokatu behar duen argi eta garbi jakitea; ongi jakitea daukazun taldearen ara-bera nola jokatu behar duzun; eta, azkenik, jokalaria tratatzen jakin behar duzu. Horretaz gain zorte ona izatea ere ez dago gaizki.

EGUNKARIA.— Zure entrena-
tzaile ikuspuntu berri horretatik
ikusita, egun zer falta zaio Osa-
sunari sailkapeneko goi postue-
tara bueltatzeko?

SOLA.— Edozein taldeak sailka-
peneko goi postuetan egoteko
jokalari onak, entrenatzaile tre-
bea eta zaletuen laguntza behar
ditu. Hori lortzen duzunean, guz-
tiok bateratuak daudenean, fin-
katutako helburuak betetzen dira.
Kontutan hartu beharra dago ere
talde guztiek urtero jokalaria asko
fitxatzen dituztela, eta Osasunak
arlo horretan ez dauka zeregin
handiegirik. Hori dela eta urte
batzutan goian egoteko aukera
izanen du, baina beste batzuetan
behean ibili beharko du. Aurren
joko ona egiten ari dira, baina
emaitzak ordea ez dira horren
onak. Athleticen aurkako parti-
duan esate baterako, garaipena
merezi izan zuten, eta Bilbokoe-
k eraman zituzten bi puntuak.



Taxoaren, baina Osasunako elastikorik gabe dagoeneko. JOXE LACALLE

**NOSKI
JATOR**

ZVLD* EROA

